



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2023ko irailaren 19a

10. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- 11-23/ITP-00007. Interpelazioa, Europako Next Generation SEM funtsen arloko politikari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (3. or.).
- 11-23/ITP-00008. Interpelazioa, lurralde nahiz gizarte kohesioaren eta despopulazioaren aurkako borroka-aren arloko politika orokorrari buruzkoa. Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak egin du (4. or.).
- 11-23/ITP-00009. Interpelazioa, Nafarroak ECOFINen duen ordezkartzaren arloko politika orokorrari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (4. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- 11-23/POR-00123. Galdera, uda honetako ekaitzek eta depresio askatuak azpiegituretan eragindako kalte-ak konpontzeko laguntzei buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (5. or.).
- 11-23/POR-00124. Galdera, AP-15 autobideko deskontuei buruzkoa. Ainhoa Unzu Garate andreak egin du (5. or.).
- 11-23/POR-00125. Galdera, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuaren beka-deialdiaren berrikuntzei buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (6. or.).
- 11-23/POR-00126. Galdera, Nafarroan tutoretzapeko adingabeak prostituitu izanari buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (6. or.).
- 11-23/POR-00127. Galdera, Euskararen II. Plan Estrategikoaren gaineko negoziazioei buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (7. or.).
- 11-23/POR-00128. Galdera, Nafarroan itxarote-zerrendak zertan diren jakiteko. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (7. or.).
- 11-23/POR-00129. Galdera, helduei euskara irakasteari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (8. or.).
- 11-23/POR-00130. Galdera, Nafarroako Gobernuaren egitura handitu izanari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (8. or.).
- 11-23/POR-00131. Galdera, Fiteron, Corellan eta Cintruénigon euriteek eta kazkabarrak eragindako kalte-ak arintzeko neurriei buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (9. or.).

- 11-23/POR-00132. Galdera, Castejóngo industrialdea handitzeko lanei buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (9. or.).
- 11-23/POR-00133. Galdera, Paderborn-Lezkairu ikastetxe publikoko D ereduari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (10. or.).
- 11-23/POR-00134. Galdera, La Manadako erasotzaileetako bati zigorra arintzen dion autoari buruzkoa. Ramón Alzorriz Goñi jaunak egin du (11. or.).
- 11-23/POR-00135. Galdera, Frontexen Administrazio Kontseiluaren bilera Iruñean egiteari buruzkoa. Javier Arza Porras jaunak egin du (11. or.).
- 11-23/POR-00136. Galdera, heldu diren 4 urteetarako berrindustrializazio planari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (12. or.).
- 11-23/POR-00137. Galdera, Fitero, Corella eta Cintruénigo hondamen-eremu ez deklaratzeko arrazoiei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (12. or.).
- 11-23/POR-00138. Galdera, Energia berriztagarriko instalazioak paratzeko zer lurzoru diren baimengarri eta zein ez zehaztuko duen mapa bat egiteari buruzkoa. Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak egin du (13. or.).
- 11-23/POR-00142. Galdera, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legean ezarritako epeak betetzeari buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (13. or.).
- 11-23/POR-00143. Galdera, Osasunari buruzko Foru Lege berri bat onesteari buruzkoa. Uxue Barcos Berruezo andreak egin du (14. or.).
- 11-23/POR-00144. Galdera, Esako urtegia hazteko obren segurtasunari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (15. or.).
- 11-23/POR-00147. Galdera, bateria-fabrika VW-Navarraren barruan instalatzeari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (16. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-23/ELC-00001. Nafarroari foru komunitate gisa dagokion senataria hautatzea. Hautagaitzak aldarrikatzea (17. or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**11-23/ITP-00007. Interpelazioa, Europako Next Generation SEM funtsen arloko politikari buruzkoa**

*ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako interpelazioa, Europako Next Generation SEM funtsen arloko politikari buruzkoa.
2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.
3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, Europako Next Generation SEM funtsen arloko politikari buruzko honako interpelazio hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari.

Iruñean, 2023ko irailaren 14an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

## **11-23/ITP-00008. Interpelazioa, lurralde nahiz gizarte kohesioaren eta despopulazioaren aurkako borrokaren arloko politika orokorrari buruzkoa**

*ANTONIO JAVIER LECUMBERRI URABAYEN JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak egindako interpelazioa, lurralde nahiz gizarte kohesioaren eta despopulazioaren aurkako borrokaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko Javier Lecumberri Urabayenek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Lurralde nahiz gizarte kohesioaren eta despopulazioaren aurkako borrokaren arloko politika orokorra.

Iruñean, 2023ko irailaren 14an

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Urabayen

## **11-23/ITP-00009. Interpelazioa, Nafarroak ECOFINen duen ordezkari-tzaren arloko politika orokorrari buruzkoa**

*MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak egindako interpelazioa, Nafarroak ECOFINen duen ordezkari-tzaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Nafarroak ECOFINen duen ordezkari-tzaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

Iruñean, 2023ko irailaren 14an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-23/POR-00123. Galdera, uda honetako ekaitzek eta depresio askatuak azpiegituretan eragindako kalteak konpontzeko laguntzei buruzkoa***MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, uda honetako ekaitzek eta depresio askatuak azpiegituretan eragindako kalteak konpontzeko laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Miguel Bujanda Cirauqui jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik aparteko deialdi bat egiteko eta aurrekontu-partida bat gaitzeko toki entitateentzat, uda honetako ekaitzek eta depresio askatuak azpiegituretan eragindako kalteak konpon ditzaten?

Iruñean, 2023ko irailaren 13an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

**11-23/POR-00124. Galdera, AP-15 autobideko deskontuei buruzkoa***AINHOA UNZU GARATE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Garate andreak egindako galdera, AP-15 autobideko deskontuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Orain arte indarrean egon diren deskontuak bukatu eginen bide direnez, Nafarroako Gobernuak ba al du neurririk ezartzeko asmorik joan-etorria egunean egiten duten AP-15eko erabilzaileen mesedetan?

Iruñean, 2023ko irailaren 14an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

## **11-23/POR-00125. Galdera, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuaren beka-deialdiaren berrikuntzei buruzkoa**

*KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako galdera, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuaren beka-deialdiaren berrikuntzei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Kevin Lucero Domingues jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hil honetan hasi den ikasturteari begira, zer berrikuntza dakar zure departamentuaren beka-deialdiak?

Iruñean, 2023ko irailaren 14an

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

---

## **11-23/POR-00126. Galdera, Nafarroan tutoretzapeko adingabeak prostituitu izanari buruzkoa**

*EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako galdera, Nafarroan tutoretzapeko adingabeak prostituitu izanari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikitako Emilio Jiménez Román jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 209. artikuluetan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroan tutoretzapeko adingabeak prostituitu izanaren albiste tristea dela-eta, Nafarroako Gobernuak zer neurri hartu ditu, tutoretzazentroen arduraduna den aldetik, 11 urtetik 14 urtera bitarteko neskatoen prostituzio-kasu horiei heltzeko?

Iruñean, 2023ko irailaren 14an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

## **11-23/POR-00127. Galdera, Euskararen II. Plan Estrategikoaren gaineko negoziazioei buruzkoa**

*IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak egindako galdera, Euskararen II. Plan Estrategikoaren gaineko negoziazioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Iñaki Iriarte López jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuako Herritarrekiko Harremanetako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan dira Gobernuaren baitako negoziazioak Euskararen II. Plan Estrategikoari dagokionez?

Iruñean, 2023ko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

---

## **11-23/POR-00128. Galdera, Nafarroan itxarote-zerrendak zertan diren jakiteko**

*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Nafarroan itxarote-zerrendak zertan diren jakiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Leticia San Martín Rodríguez andreak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Osasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer iritzi du Osasuneko kontseilariak Nafarroako itxarote-zerrenden egoera dela-eta?

Iruñean, 2023ko irailaren 14an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

## 11-23/POR-00129. Galdera, helduei euskara irakasteari buruzkoa

*MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak egindako galdera, helduei euskara irakasteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak irailaren 21eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Irailaren 1ean, Euskarabideak 2023-2024 ikasturterako helduen euskalduntze kanpaina aurkeztu zuen, kanpainarekin bat egin duten toki entitateen ordezkariekin eta euskara irakasten duten ikastetxe publiko eta pribatuetako ordezkariekin batera.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

Zertan da helduen euskalduntzea eta zer helburu ezarri dituzue legegintzaldi honetarako?

Iruñean, 2023ko irailaren 14an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

## 11-23/POR-00130. Galdera, Nafarroako Gobernuaren egitura handitu izanari buruzkoa

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, Nafarroako Gobernuaren egitura handitu izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak ahoz erantzun diezaion:

Gizartearen zer alde eskatu dizue are gehiago handitu dezazuen Nafarroako Gobernuaren egitura?

Iruñean, 2023ko irailaren 14an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso



## 11-23/POR-00131. Galdera, Fiteron, Corellan eta Cintruénigon euriteek eta kazkabarrak eragindako kalteak arintzeko neurriei buruzkoa

*PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak egindako galdera, Fiteron, Corellan eta Cintruénigon euriteek eta kazkabarrak eragindako kalteak arintzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak irailaren 21eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Erriberako Fiterok, Corellak eta Cintruénigok hainbat kalte eragin zituzten euri- eta kazkabar-erauntsiak pairatu zituzten iragan irailaren 9an, larunbatetik iganderako goizaldean.

Zer laguntza-neurri bultzatuko dituzue euri- eta kazkabar-erauntsi horiek eragindako ondorioak arintzeko?

Iruñean, 2023ko irailaren 14an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

## 11-23/POR-00132. Galdera, Castejónigo industrialdea handitzeko lanei buruzkoa

*CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, Castejónigo industrialdea handitzeko lanei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta

Digitaleko kontseilariak 2023ko irailaren 21eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Iragan martxoaren 6an, Garapen Ekonomiko eta Enpresariako orduko kontseilari Mikel Irujok eta Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren orduko zuzendari nagusi Izaskun Goñik Castejónigo Trenasaren plantara egindako bisitan iragarri zen, Nafarroako Gobernuaren webgunean jasotako prentsa-ohar baten arabera, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren Zuzendaritza Nagusia lanean ari zela tren-hiri horretako industrialdea handitzeko.

Prentsa-ohar horretan nabarmentzen zen Castejónigo industrialdea, zeina Nafarroako Gobernuak 2000tik aitzina sustatzen baitu eta hainbat sektoretako jarduerak baitaizka, komunikazio-gune bikaina zela eta, tren-nodoa bertan zegoenez gero, enpresak bertan paratzeko erakargarria zela.

Jakin badakigu industrialde horretan jada paratuta dauden zenbait enpresak interesa dutela

beren egungo instalazioak handitzeko eta beste zenbait paratzeko aukera dagoela.

Zertan dira Nafarroako Gobernuak Castejóngo industrialdea handitze aldera iragarritako lanak?

Iruñean, 2023ko irailaren 14an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

---

## 11-23/POR-00133. Galdera, Paderborn-Lezkairu ikastetxe publikoko D ereduari buruzkoa

### *ENKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Paderborn-Lezkairu ikastetxe publikoko D ereduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu-Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parla-

mentuko Erregelamenduaren babesean, eskatzen du Carlos Gimeno Gurpegui Hezkuntza kontseilariak Osoko Bilkuran honako galdera honi ahoz erantzun diezaion.

Joan den irailaren 5ean, María Chivite lehendakariak, Carlos Gimeno Hezkuntza kontseilariarekin batera, Paderborn-Lezkairu ikastetxe publiko berriari bisita egin zion, Ikastetxeak 2023-2024 ikasturtean hasi behar baitu ibilbide berria. Bisita horretan, Chivite andreak adierazi zuen ikasturte honetan ez dela D eredurik sortu, eskaera faltagatik.

Zer jarduera-plan izan du Hezkuntza Departamentuak, ikastetxeko zuzendaritzarekin batera, Paderborn-Lezkairun D eredu bultzatzeko?

Iruñean, 2023ko irailaren 14an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

## **11-23/POR-00134. Galdera, La Manadako erasotzaileetako bati zigorra arintzen dion autoari buruzkoa**

*RAMÓN ALZORRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzorriz Goñi jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, La Manadako erasotzaileetako bati zigorra arintzen dion autoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzorriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak 2023ko irailaren 21eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak zer egingen du La Manadako erasotzaileetako bati zigorra arintzen dion autoa ezagutu ondoren?

Iruñean, 2023ko irailaren 14an

Foru parlamentaria: Ramón Alzorriz Goñi

## **11-23/POR-00135. Galdera, Frontexen Administrazio Kontseiluaren bilera Iruñean egiteari buruzkoa**

*JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak egindako galdera, Frontexen Administrazio Kontseiluaren bilera Iruñean egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilari Begoña Alfaro García andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Frontexek Administrazio Kontseiluaren bilera egingen du Iruñean irailaren 20an eta 21ean. Zergatik hautatu da egoitza hori, Nafarroako Gobernuak eskaini al du bilkura Iruñean egitea?

Iruñean, 2023ko irailaren 14an

Foru parlamentaria: Javier Arza Porrás

## 11-23/POR-00136. Galdera, heldu diren 4 urteetarako berrindustrializazio planari buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, heldu diren 4 urteetarako berrindustrializazio planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer plan darabil foru erkidegoa datozen lau urteotan berrindustrializatzeko?

Iruñean, 2023ko irailaren 14an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## 11-23/POR-00137. Galdera, Fitero, Corella eta Cintruénigo hondamen-eremu ez deklaratzeko arrazoiei buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, Fitero, Corella eta Cintruénigo hondamen-eremu ez deklaratzeko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zergatik ez ditu hondamen-eremu deklaratu Fitero, Corella eta Cintruénigo?

Iruñean, 2023ko irailaren 14an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## **11-23/POR-00138. Galdera, Energia berriztagarriko instalazioak paratzeke zer lurzoru diren baimengarri eta zein ez zehaztuko duen mapa bat egiteari buruzkoa**

*ANTONIO JAVIER LECUMBERRI URABAYEN JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak egindako galdera, Energia berriztagarriko instalazioak paratzeke zer lurzoru diren baimengarri eta zein ez zehaztuko duen mapa bat egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Lecumberri Urabayen jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak irailaren 21eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legeak ezartzen duenez, Nafarroako Gobernuak mapa bat taxutuko du, non zehaztuko baitira energia fotovoltaikoko instalazioak ezartzeko baimengarriak diren nahiz debekua duten lurzoruak.

Zertan da mapa hori prestatzeko lana?

Iruñean, 2023ko irailaren 14an

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Urabayen

## **11-23/POR-00142. Galdera, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legean ezarritako epeak betetzeari buruzkoa**

*LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legean ezarritako epeak betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Aurreko legegintzaldian, Nafarroako Parlamentuak aho batez onetsi zuen Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko 4/2022 Foru Legea, zeina 2022ko apirilaren 1ean argitaratu baitzen NAO-n. Nafarroako Gobernuak oraindik ez ditu bete legean ezarritako zenbait epe.

Zer plangintza darabil gogoan Nafarroako Gobernuak Klima Aldaketari eta Trantsizio Ener-

getikoari buruzko Foru Legean ezarritako epeak betetzeari begira?

Iruñean, 2023ko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

---

## **11-23/POR-00143. Galdera, Osasunari buruzko Foru Lege berri bat onesteari buruzkoa**

### *UXUE BARCOS BERRUEZO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Uxue Barcos Berruezo andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, Osasunari buruzko Foru Lege berri bat onesteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Uxue Barkos Berruezo, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak irailaren 21eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Karguaren jabetza hartu zenuenetik lehenetsi duzu, Oinarrizko Osasun Laguntzarekin eta itzarote-zerrendekin batera, osasunari buruzko foru lege berria onestea. Zure departamentuak zer helburu du arlo horretan?

Iruñean, 2023ko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Uxue Barcos Berruezo

## 11-23/POR-00144. Galdera, Esako urtegia hazteko obren segurtasunari buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Esako urtegia hazteko obren segurtasunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak 2023ko irailaren 21eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Jakin dugunez, Copernicus-Lurra Behatzeko Europar Batasunaren Zerbitzuak baieztatu du

Esako hegalek mugitzen jarraitzen dutela, 100 metroko sakoneraraino mugitu ere, halako moduan non "behin betikoz urruntzen baita segurtasun-faktore onargarriak lortzeko aukera", zenbait entitate zibilek salatu dutenez.

Emaitzek berresten dute mugitutako masak higitzen jarraitzen duela, aldi berean gertatzen diren lau prozesuren ondorioz bereziki: goialdeko errebote elastikoa (pisua kentzearen ondorioz) eta behealdearen hondoratzea; mugimendu horizontalak mendebalderantz ibaian behera eta ekialderantz ibaian gora; ura biltze-huste ziklotan lurra gora eta behera mugitzen da eta maldan herrestatu, eta marruskadura, tentsio eta haustura eremu gehiago sortzen ari dira mugitutako masaren baitan.

Azken informazio horiek kezka eragin dute bertako bizilagunen artean, azken urteotan kezka ikusten baitute Esako urtegia hazteko obrak.

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du Esako urtegia hazteko obren segurtasuna dela eta ezagutu diren datuez?

Iruñean, 2023ko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

## **11-23/POR-00147. Galdera, bateria-fabrika VW-Navarraren barruan instalatzeari buruzkoa**

*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, bateria-fabrika VW-Navarraren barruan instalatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zergatik ez du aurrea hartzen bateria-fabrika VW-Navarraren barruan etga VW taldearen inbertsioarekin paratu dadin saiatzeko?

Iruñean, 2023ko irailaren 18an.

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea



---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**11-23/ELC-00001. Nafarroari foru komunitate gisa dagokion senataria hautatzea**

*HAUTAGAITZAK ALDARRIKATZEA*

2023ko irailaren 18an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, besteak beste honako erabaki hau hartu zuen:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 235. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, eta kontuan hartuta Espainiako Konstituzioaren 69.5 artikulua, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 12. artikulua eta Mahaiak 2023ko irailaren 4an hartutako Erabakia, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ERA-BAKI DA:

**1.** Honako pertsona hauek aldarrikatzea Nafarroako Foru Komunitateko senatari izateko hautagai gisa:

– Juan José Echeverría Iriarte jauna, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkeztua.

– Miren Uxue Barcos Berruezo andrea, Geroa Bai talde parlamentarioak aurkeztua.

**2.** Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei helaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias





